

Open
Government
Partnership



Euskadi

**2018-2020 Ekintza Planetik
2021-2023 Plana
elkarrekin diseinatzera**






Euskal Autonomia Erkidegoko 2018-2020 Ekintza Plana

Euskal Autonomia Erkidegoko maila instituzionalok urteak generamatzen gobernu ireki moduan lanean, era independentean. Hala ere, Open Government Partnership-en tokiko OGP programan izandako partaidetzari eta **OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planari** esker (azken hori gizarte zibilarekin batera diseinatu baitugu), **3 erronka estrategikori** ekin ahal izan diegu:

2

- **Erakundearteko lankidetz**a sustatu dugu, horren ganean finkatu nahi izan baitugu Euskadirako gobernu irekiaren eredu bat, hauek txertatu nahi dituen: herritarrek ekintza publikoan dituzten esperientzia, jakintza eta proposamenak.
- **Gobernu irekiko politiken koordinazio handiagoa eta hobe**a, hasi kudeaketa-maila hurbilenetatik, udaletatik alegia (Bilbo, Donostia, Gasteiz), eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen politika eta proiektuetaraino, tartean direla hiru foru-aldundiak, probintzia-mailan lan egiten dutenak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru lurraldeetan.
- **Diseinu eta sortze bateratua** sartu ditugu, herritarrekin batera, gure ekintzetan zeharkakotasun handiagoa lortuko duten ekimenak zehazteko (konpromiso berberak gobernu-maila desberdinetarako, ñabardura eta ikuspegi desberdinak sartuz balio partekatuen arabera esperimintatzeko: inplikazioa eta lankidetz), bai eta baterako ekintzen lehentasunak eta adibideak ezartzeko ere.

Plan hau diseinatu eta garatu bitartean (oraindik ere martxan dago) **erdietsi ditugun lorpenen** artean, honako hauek nabarmendu behar dira:



Aldi honetan, **hobetu beharreko zenbait alderdi ikusi ditugu**, hurrengo planaren diseinuan kontuan hartu beharrekoak:



1

- **Tener mayor impacto comunicativo en la población** (difusión mejorable). Aunque estamos ahora en la difusión de los videos explicativos de la OGP Euskadi y los 5 compromisos.

2

- **Hasta este momento muy centrados en la ejecución de los compromisos, quizás, desatendidos aspectos de la evaluación del proceso y resultados que necesitaremos** (perspectiva de diversidad de los colectivos con barreras para la participación, evaluaciones participadas de los pilotos, cuestionarios de satisfacción de participantes en procesos, grupo de compromiso...).

3

- **Una mayor incorporación de los sistemas de participación y colaboración virtual** ya que el estado de alarma ha paralizado todos los encuentros presenciales de los grupos de compromiso, pilotos y foros abiertos.

3

Orain arte, zenbait bideo diseinatu ditugu, sare sozialetan zabaldu eta gizarte zibileko ahalik eta pertsona gehienengana iritsi ahal izateko, helburutzat hartuta konpromiso-taldeak sortzera animatzea, non gauden eta zer garen azaltzea, planeko konpromisoetako bakoitzean nolako aurrerapena izan dugun erakustea, bai eta martxan dauden ekimenak ere.

- 8 erakunde sustatzaileetako arduradunen [bideoa](#).
- OGP Euskadiko [bideo](#) orokorra.
- OGP Euskadiko [bideo](#) orokorra.
- [1. konpromisoa](#). Agintaldiko planen kontuak ematea.
- [2. konpromisoa](#). Open data eta linked data.
- [3. konpromisoa](#). Herritarren partaidetzarako berrikuntzako llib-a.
- [4. konpromisoa](#). Herritarrentzako eskola irekia (argitaratzeke).
- [5. konpromisoa](#). Integritatearen Euskal Sistema (argitaratzeke).

Eta OGP Euskadi 2020 Planaren betearazpena amaierara iristen ari den fase honetan, **konpromisoetako bakoitzaren egoera** honako hau da:





Azkenik, **2018-2020 Planeko betearazpen-prozesuaren auto-ebaluazioa** jarri dugu martxan, honako adierazle hauek neurtzeko asmoz:

- Ezarritako helburuen betearazpen-maila.
- Partaidetzarekin egindako lan-saioen kopurua.
- Bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak dituzten taldeen partaidetza-maila.
- Konpromiso-taldeko partaideen gogobetetze-mailak.
- Foro Erregularraren gogobetetze-maila, egindako prozesuak eta amaierako produktuak direla eta.
- Herritarrek parte hartu duten prozesuekin edo ereduarekin duten gogobetetze-maila.

Lehen plana eduki izanaren abantailak

OGP Euskadi 2018-2020 Plana diseinatu eta betearazteak **irakaspen edo ikasbide** batzuk ekarri dizkigu, eta hemen nabarmenduko ditugu:



- **Euskadiko hiru maila instituzionalen arteko lotura eta lankidetz handiagoa**, OGP Euskadi 2018-2020 Planaren konpromisoei ekiteko. Planeko 5 konpromisoak ezarri eta hedatzeko, 2-3 administrazio desberdinen **lidergo partekatua** baliatu da, konpromiso horietako bakoitza garatzeaz arduratu baitira.
- **Lurraldetasuna haustea, bai erakundeen mailan, bai gizarte zibilaren mailan**, konpromisoak garatu eta hedatzean lurralde eta eremu desberdinetako agenteak egon baitira inplikatur.
- **Gobernu Irekiari buruzko gutxieneko eta oinarrizko ardatz komun eta sendoak ezarri ditugu**; izan ere, lehendik ere bagenituen erakunde bakoitzean, eta erakundeartean onartu dira orain, modu koordinatuan.
- **Konexio handiagoa eta ezagutza handiagoa** dugu gizarte zibilak helarazi dizkigun beharrezko gaitasunak, herritarrek erakundeen estrategiak eta planak diseinatzeko prozesuetan izan dezaketen partaidetzarekin lotuta.



- **Hobetu ulertu ditugu OGPren estandarrek ezartzen dituzten egiteko eta antolatzeko moduak**, Foro Erregular kohesionatua tarteko, zeina indartu baita, planaren garapenak aurrera egin ahala.

Baina, era berean, **hobetu beharreko alderdi** batzuk ere baditugula konturatu gara:

- Hurrengo Planerako, **5 konpromiso (horixe da hautatu dugun kopurua) gehiegizkoa izan daiteke**. Konpromiso handinahiak hartzen baditugu helburu, gure ustea da, hurrengo planerako konpromiso-kopurua murriztuz gero, aukera gehiago izan dezakegula haien irismenean eta komunikazioan, eta beste agente batzuk sar daitezkeela (jende gehiagorengana irits gintezke, hau da, kolektibo gehiagorengana, inoiz parte hartzen ez duten edo parte hartzeko deirik jasotzen ez duten “unusual suspects” delakoengana...).
- 5 konpromisoen ondoriozko **prozesuei eta azken produktuei iraunkortasuna emateko baliabide eta bitartekoak jartzeko erronka** handia da; izan ere, erakundearteko lankidetzatik jorratu behar da, eta konplexuago bihurtzen dira instituzionalizazio- eta transferentzia-prozesuak. Aztertzen ari gara nola formalizatu daitekeen erakundearteko lankidetzaren finantza-baliabideak kudeatu eta ekitatea lortzeko inplikazio-mailan.
- Zenbait kolektibok hartu du parte egungo planean (elkarte-mailan nahiz norbanako moduan). Hala ere, **gazteak eta haurrak ez ditugu asko sartu plan honetan**, nahiz eta kolektibo gisa aipatu planean.
- **Bi urteko denbora-muga urria da** erronka konplexuei ekiteko, hauek behar dituzte eta: elkarrekin sortzeko eta erabakitzeko prozesuak, bai eta partaidetzazko ebaluaziokoak ere. Eta, gainera, badira planifikatu ezin diren gertakariak, esaterako:
 - Alarma-egoera, administrazio-prozeduren epemugak eta epeak eten dituen (besteak beste kontratazioetan eraginik), eta, gainera, konfinamendu-egoeran, hots, aurrez aurreko bilerarik egiteko aukerarik gabe konpromiso-taldeetan, foro erregularrean, foro irekian eta abar.
 - Udaletako, erkidegoko nahiz estatuko hauteskundeak, agintaritzen presentzia duten ekitaldi publikoak egitea eragozten dutenak edo hauteskunde aurreko fasean gizarte-sareetan edo hedabideetan zabaltzeko aukera galarazten dutenak.





Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2023 Ekintza Plan berria elkarrekin diseinatzea

OGPren orientazioei jarraikiz, nahitaezkoa da plana elkarrekin diseinatzea. Administrazioak proposamenak egin eta herritarrek haien artean aukeratzea ez da aski. Horretarako, ezaugarri jakin batzuk dituen prozesua abiaraztea pentsatzen ari da talde sustatzailea. Ezaugarri horiek, zehazki, aurrez aurreko diseinu bateratuko eta kontrasteko prozesuekin eta epeekin lotuta daude, eta egungo alarma- eta konfinamendu-egoeran foro erregularrak zalantzan jarri ditu.

Nola ekin nahi genion plan berria elkarrekin diseinatzeari?

GIZARTE ZIBILAREN ETA ERAKUNDEEN ESKARIAK/BEHARRIZANAK

a. Abiaraztea eta proposamenen bidez laguntzeko deia (maiatza/ekaina)

- i. OGP Euskadiren webgunean eta webgune instituzionaletan. Zerbait sinplea baino oso ondo bideratua, foro irekiak deitzeko dauzkagun helbide elektronikoetara bidaliko litzatekeena.
- ii. Informazio gakoa jasotzen duen formulario txikia, proposamen desbideraturik ager ez dadin, esaterako, "pentsioak konpondu" eta antzekoak, ez baitira bideragarriak.
 - Euskal erakundeek lankidetzan garatu ditzaketen zerbitzuak, politikak edo jarduerak, gardenagoak, partaideagoak eta lankidetzazkoagoak izan daitezten.
 - Bakoitzaren eskumenen barruan sartzen direnak.
 - Bi-lau urteko epean egin daitezkeenak.
 - Eta abar.
- iii. Era honetako edukiak:
 - Euskal erakundeek lankidetzan garatu ditzaketen jarduerak, gardenagoak eta parte-hartzaileagoak izan daitezten ematen dituzten zerbitzuetan edo sustatzen dituzten politikan.
 - Zer beharizan edo arazo konpondu nahi den.
 - Zer erakundek parte hartu beharko luketen.
 - Zer agente herritarrek parte hartzea komeniko litzatekeen.
 - Zer azken emaitza lortu beharko litzatekeen.
 - Zer zailtasun-maila egon litekeen: oso altua, altua, ertaina, baxua, edo oso baxua.
 - Zer eragin-maila izango lukeen: oso altua, altua, ertaina, baxua, edo oso baxua.
 - Proposamena egin duen agente-mota: herritarra; erakunde herritarra; enpresa; unibertsitatea; administrazio publikoa; beste batzuk.
- iv. Dei hau **ez litzaeike herritarrei soilik egingo; aitzitik, erakunde sustatzaileek (80k) konpromisoa hartuko genuke, esate baterako, 2 proposamen egiteko informazio-maila berarekin**, eta, ondoren, proposamenen base komunean jasoko genuke dena.

b. Panel edo talde herritarrak/instituzionalak eta adituak, honako irizpide hauen arabera proposamenak hautatzeko (uztaila/iraila)






- i. Beharrizana (zein hutsune edo eskariri erantzun nahi zaion).
 - ii. Aukera (martxan dauden beste ekimen batzuekiko lotura).
 - iii. Bideragarritasuna (hura zuzentzeko interes instituzionala barne). Zailtasuna eraginaren adierazle izan daiteke.
 - iv. Ematen duen balioaren azterketa (espero diren eraginak eta produktuak).
- c. **Datuak egiaztatu eta kontuak emateko prozesua, modu irekian, behin betiko proposamenak hautatzeko (iraila/urria) FORO IREKIAN (publizitatearekin...).**
- d. **Plana idaztea (azaroa)** Bertsioak euskaraz eta ingelesez. Bertsio bakarra herritarrentzat (agiria ezin da konplexua izan; erabili hizkuntza argia, eskemak, euskarri bideografikoak).

Plan berria diseinatzeko oztopoak

Eragozpenak eta kezkak



Hala ere, aurrean dugun **fase berri honetarako aukerak eta ikasbideak** ere badaude:





Aukerak eta ikasbideak

- 1 • Tener en cuenta la situación del coronavirus como **oportunidad para diseñar algún compromiso en ese sentido.**
- 2 • **Apalancarse en las iniciativas y agentes que se han activado en pro del bien común ante esta emergencia** para la recepción y desarrollo de propuestas.
- 3 • **Reforzados los valores y principios del gobierno abierto.** Importancia de la colaboración, la participación, la transparencia, la rendición de cuentas... para abordar con evidencias y en abierto la gestión pública.
- 4 • **La capacitación en gestión pública y el rol del personal público como agentes de transformación e innovación.** Posibilidad de desarrollar contenidos formativos de apertura en políticas públicas.
- 5 • **Priorizar el análisis e implantación o modificación de plataformas o herramientas on line** de uso sencillo y versátiles que ayuden al codiseño, contraste, codecisión...con colectivos de personas amplios cuando no sea posible la actividad en presencial.

4. atala, **langile publikoak eraldaketa eta berrikuntzarako agente gisa trebatzeari buruzkoa, oso garrantzitsua da, eta bat dator OGPren printzipioekin.** Politika publikoak irekitzeko, hau da, gizarte zibila politikak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesuan inplikatzeko, beharrezkoa da kudeatzaile publikoak trebatuta egotea, prozesu horiek (irekiak, partaideak, etikoak...) martxan jarri eta printzipio horiek betetzeko. Eusko Jaurlearitzak gai hori lehendik ere landu zuen [“Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria”](#) delakoan, eta hurrengo planean jorratu daitekeen zereginetako bat da. Horretarako, berariaz aztertu beharko litzateke halako ekimenen bat sartzeko modurik bideragarriena, bai eta langile publikoen curriculumak diseinatzeko orduan gobernu irekiarekin lotutako edukiak sartzeko aukera ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan badugu erakunde komun bat Euskadiko administrazio publiko guztietarako: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Azken horrek lankidetzan dihardu administrazioekin, herritarrei zerbitzu eraginkorrak, kalitatezkoak eta elebidunak emateko, zerbitzu publikoaren balio partekatuen arabera. Horretarako, langileak hautatu eta prestatzeko prozesuak baliatzen ditu, eta hizkuntzaren, administrazioaren, justiziaren eta kudeaketa-hobekuntzaren gaineko ikerketa eta aholkularitza sustatzen ditu.

Azken atal hori oso esanguratsua izan da 2018-2020 Planaren amaierako fase honetan, aurrez aurreko partaidetza-prozesuak ez baitira bideragarriak izan. Administrazio guztiek ditugu partaidetzarako plataformak, baina horien erabilerak, proposamen-mailak eta balioa sortzeko aukerak eztabaidagarriak dira, gutxienez biztanleriako talde handietara iritsi nahi duten proiektuetan, hots, aniztasuna, harremanaren kalitatea eta komunitatearen eta ongizatearen sorkuntza piztu nahi dituzten proiektuetan. Hala ere, alarma-egoera honetan ikusi dugu gizarte zibilak baduela autoantolaketarako eta dei instituzionalei erantzuteko gaitasun bat, online plataformen bidez aktibatze gaitasun bat ere erakusten duena, eta horren guztiaren ezaugarriak aztertu behar ditugu.

